



MUSIKA. Azken hiru urteotan taldekide berriekin konposatu dituzten «kantu onenak» bildu dituzte lan berrian

Pop doinuekin heldu da Urtz taldea 'Aingeru' bere bosgarren diskoan

Heavy doinuak albo batera utzi eta «herri musikari» heldu dio, ohiko goxotasunarekin

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA

Aurpegi, doinu eta disko berriarekin agertu da berriro plazara Urtz musika taldea. Javi Estella gitarrista eta Ritxi Barrenetxea baxu jotzailea dira taldekide berriak; pop-a eta power-a dira oraingo doinuak; eta *Aingeru* (Oihuka) bosgarren diskoaren izena. Xabier Camarero Urtz taldeko abeslaria oso gustura dago berrikuntza horiekin: «Taldekide berriek oso ongi ulertu dute gure filosofia, gure musika eta hitzak egiteko modua. Aberasgarria izan da eurekin lan egitea», adierazi zuen atzo, diskoaren aurkezpenean. Lan berrian hiru urtean egin dituzten 10 kantu sartu dituzte, «onenak».

Hain zuzen, hiru urte zeramatzan diskorik argitaratu gabe 1988an Pasaian sortu zen musika taldeak. Beraz, *Aingeru* ez dela inertziari jarraituz eginiko lana azpimarratu zuen Oihuka disketxeko arduradun Ritxi Aizpuruk: «Beste indar bat du; sakonagoa da. Hasierako urteetan taldeari arrakasta eman zioten lelo errepikakorrek badaude, baina teknikarekin landuak».

Diskoak «herri musikaren»



Xabi Camarero, Javi Estella, Ritxi Barrenetxea eta Josu Ariztegi taldekideak.

—pop-aren— ildoari jarraitu diola azaldu zuen Oihukako ordezkariak. Hala ere, hastapenetako heavy ukituak ageri dira kantuetan. Abesteko modua betikoa da: «Xabi Camarero

kantariaren ahots goxoak halako kantuak, goxoak, egiten ditu. Hala ere, badaki gogorra izaten». Aizpurretzat goxotasuna indartsu abesten du Camarero. Diskoa Urtz musika taldeak egin zezakeen lanik onena dela gaineratu zuen.

Musika eta hitzaren ezkontza garrantzitsua

Aingeru taldekide berriekin eginiko lehenengo abestiaren izenburua da, eta hori da diskoari

izen bera jartzeko arrazoia: «Abesti hau da diskoaren ardatza; nolabait, diskoaren laburpena da».

Ohi bezala, oso garrantzitsuak dira kantuen hitzak. Inaki Lazkanok egin dizkie, eta maitxuna edo itxaropea dira gai nagusiak. Ateak beti zabalik egon behar duela gogorarazi nahi dute. «Hitzak eta musikaren arteko ezkontza oso garrantzitsua da guretzat, eta saiatu gara ongi egiten».

Juan Carlos Irizar pianistak aire erromantikodun bi disko kaleratu berri ditu

Ainara Gorostizu | DONOSTIA

Juan Carlos Irizarrek bere «barreneko sentimendurik sakonenak gorpuztu nahirik» kalean ditu bere bi azken lanak. Oraingo honetan aire erromantikoak dira nagusi. *Suhar* eta *Gabon doinuak* izena dute diskoek.

Lan horiek instrumentaltak dira, nahiz eta *Suhar*-en Egan taldean aritutako Pelaez anaiak eta Estibalitz Asua bizkaitar gazteak abesten duten zenbait kantuetan. Azken urtean sortutako hemeretzi doinu osatuta dago diskoa, bertan konposizio originalak nahiz doinu herrikoi ezagunak nahasten ditu. *Brodatzen ari nintzen*, *Marina*, *La paloma*, *Lurkoi liluragarria*, *Suharren lo kantak*, *Ume eder bat* eta *Isabelita* dira disko honek biltzen dituen beste abesti lasai batzuk.

Gabonetako abestiak

Gabon doimuak deituriko diskoan berriz, hogeita lau doinu bildu ditu. Guztiz instrumentala da disko hau, baina doinuen letrak barneko koadernotxoan agertzen dira.

Eguberrietako abesti ezagun ugari entzun litezke—*Birjiña maite*, *Olentzero*, *Gabeko izar*...—, baita J.J. Belaustegiren *Gabon kanta* ere. Abesti hau lehen aldiz grabatu da orain disko batean.

ABENDUAK 1 || BILBOKO AYALA ANTZOKIAN || 18:00ETAN
ABENDUAK 2 || TOLOSAKO BEOTIBAR PILOTALEKUAN || 17:00ETAN

Euskal Herriko Bertsolarie Elkartea

BILBO
ABENDUAK 1, larunbata
18:00etan
AYALA ANTZOKIAN

TOLOSA
ABENDUAK 2, igandea
17:00etan
BEOTIBAR PILOTALEKUAN

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2001

Laguntzailea: **Egunkaria**

Euskaraz ere ikasi du

Harry Potter-ek

elkar